PRENTSA OHARRA

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

# Praktiketan dauden irakasle funtzionarioei plazak esleitzeko ekitaldia abuztuaren 23an izango da

*Kontratatuek astearteko arratsaldetik ostiraleko, abuztuaren 26ko, goiza bitartean aukeratuko dute plaza*

Osteguna, 2016.eko abuztuak 18



Hezkuntza Departamentua.

Asteartean, abuztuak 23, goizeko 10:00etan egingo da praktiketan dauden irakasle funtzionarioei plazak esleitzeko ekitaldia; aldiz, irakasle kontratatuen plazak esleituko dira abuztuaren 23ko arratsaldetik, asteartea, abuztuaren 26ko goiza, ostirala, bitartean.

Bestalde, astelehenean, abuztuak 29, Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasle kontratatuen plazak esleitzeko ekitaldia izango da.

Zaintzaile kontratatuen plazak esleituko dira asteartean, abuztuak 30 , 10:00etan.

Aurreikusita dago Erlijioko irakasleen plazak esleitzeko ekitaldia datorren astean iragartzea eta abuztuaren 30ean egitea.

Jakina denez, bi mila pertsona baino gehiago aurkeztu ziren pasa den ekainean Hezkuntza Departamentuak deitutako lehenengo oposizioetara bost urtean irakasle-plazarik ez eskaini ondoren. 200 lanpostu dira guztira, eta probak euskaraz nahiz gaztelaniaz egin dira.